

Ongi etorri bildu zareten emakume guztioi:

Hemen gaude berriz ere, Martxoaren 8an, Emakumeon Nazioarteko Eguna ospatzen. Komunikabideek kontrakoa dioten arren, gaur ez da soilik Emakume Langileon Eguna, hori Maiatzaren 1a baita. Gaur Emakumeon Eguna da, emakume guztiona.

Iaztik gaurko egunera gauza asko aldatu dira eta hemen aipatu nahi ditugu. Hasteko, gizonek eraildako emakumeei dagokionez, Euskal Herrian kopurua 7tik 5 emakumera jaitsi da, baina ezin dugu hori albiste ontzat hartu, oraindik ere hildakoak baitaude. Era berean, eraso salaketak gutxiago egon dira, baina Emakunderen arabera, gertatzen diren erasoen % 10a besterik ez da salatzen. Horrek argi erakusten du legeek ez dietela erasoak salatu nahi dituzten baina ausartzen ez diren emakumeei ez segurtasunik, ez konfiantzarik, ez bermerik ematen. Argi dago: egungo legeak ez dira nahikoak. Indarkeria salaketei buruz hitz egiten ari garela, esan behar dugu azken egunotan bi emakume Donostiar gazteren testigantzak iritsi zaizkigula, inkomunikazio egunetan polizien eskuetan zeudela jasandako bortxaketa simulazioak, jipoia eta ukitu lizunak salatuz.

En el plano laboral seguimos siendo las campeonas del trabajo precario y de las reducciones de jornadas. Jornada reducida - derechos reducidos.

Hace poco salió en la prensa otro dato. A día de hoy, en nuestro pequeño país, por el mismo trabajo, las mujeres cobramos entre 6.500 y 7.000 € menos por año que los hombres.

En su día exigimos al Gobierno una Ley Pública de Atención a la Dependencia, que se hiciera cargo de todo ese trabajo que hacemos hoy gratis las mujeres. Y nos dijeron que se tomarían algunas medidas, pero que no había dinero para esa Ley que nosotras pedíamos. Ese dinero que no tenían y más, lo han empleado en sacar a los bancos, pobrecitos bancos, de la crisis.

Mientras nosotras tengamos el cuidado de todo el mundo en nuestras chepas, para qué se van ellos a preocupar.

Jarra dezagun gobernuaz hitz egiten. Izañ ere, Berdintasun Legea onartu zuen gobernu horrek, oraindik ere, trajeza eta gorbatza beterik jarraitzen du. Ondo lotuta dute gainera. Eta emakumeak zer? Batzuk badaude, beno, egia esan, gutxi batzuk. Boterea gizonen eskuetan egoten jarraitzen du, eta guk faltan botatzen ditugu; gure aldarrikapenak, gure bizitzak eta gure eskubideak kontuan hartzen dituzten aurrekontu eta agenda politikoak.

Eta zer esan Munillaren izendapenaz! ¡A zer Infernua! Eliza katolikoa mugitzen den eta berekin masak, bai masak! mugitzen dituen bakoitzean ez da gerrak, pobrezia, arrazakeria, emakumeon aurkako indarkeria edota eraso sexualak salatzeko (esan, azken honetatik asko dakitelako...). Ez, ez, ez. Mugitzen badira, batez ere emakumeon edota gay eta transexualen eskubideak zapaltzeko egiten dute. Lortzea hainbeste borroka eta izerdi kosta zaizkigun eskubideak!

Bestalde, gogora dezagun duela aste gutxi Abortuaren Legea onartu zela. Azkenean! Ez, ez da guk nahi genuen Legea, baina argi dago gure borrokari, hau da, borroka feministari esker lortu dela!

Como veis, este 2010 tenemos otras tantas razones para seguir en marcha. Esta Marcha mundial de las mujeres que va de norte a sur, y de este a oeste denunciando la violencia contra nosotras, la precariedad, la pobreza, reivindicando la soberanía alimentaria, los derechos sexuales y reproductivos, y sobre todo, nuestro derecho a la libertad y a la vida plena.

Acabar con la sociedad patriarcal es el tarea del movimiento feminista y es cosa de todas. Es nuestro reto. Y para eso estamos aquí. Necesitamos de todo lo que nos une para estar juntas. Necesitamos de las diferencias para aprender a respetar la pluralidad. Necesitamos la ilusión y la fuerza de todas y cada una de nosotras y empujar en la misma dirección. Nos necesitamos.

Asko lortu dugu hasi ginenetik, baina asko dago oraindik lortzeko. Mendeko bihurtzen gaituzten loturak, esklabotza, beldur eta opresio asko ditugu emakumeok gainditzeke. Hori indibidualki zein taldean egin behar dugu, bakarka nahiz guztiak batera. Elkarren beharra dugu.

Queremos desde aquí felicitar a nuestras compañeras de Lilaton por los dos premios recibidos, bien merecidos. Ya era hora. Zorionak también a Maialen Lujanbio por esa txapela que nos llenó de orgullo y nos alegró el día a todas. Y también queremos felicitar y animar a todas las mujeres, anónimas pero con nombre propio, que luchamos día a día en nuestros entornos sin ningún reconocimiento pero con convencimiento.

Gora emakumeon bizitza

Gora emakumeon borroka

Gora mugimendu feminista

Zutik emakumeak.....

Gogoratu ostegun honetan, martxoaren 11ean, Emakumeon Mundu Martxa pasako dela Donostiatik. Beraz, hemen, Boulevard honetan, espero zaituztegu, arratsaldeko 6etatik 7terdietara, Mundu Martxari merezí duen harrera egiteko. Magiaz, kolorez, ikuskizunez espektakuloz betetako harrera!

No nos olvidemos tampoco de nuestras compañeras de Haití. Tenemos bonos de ayuda por 2 euros, con los que podemos ayudar a estas mujeres a que salgan adelante.

Agur eta ostegunera arte!!